

# ***Atsolorra*, euskal jaiotza-erritua. Ereñotzun jasotako testigantzak**

**Idurre Lekuona Antzizar**

**Euskal Filologian eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua**

*Atsolorra* garai batean Euskal Herrian egiten zen jaiotza-erritua da. Urteen poderioz *atsolorra* (ia) galdu egin da bazter guztietan. Egun zenbait herritan erritu hori berreskuratzeko ahaleginetan dabilta. *Atsolorra* esaten zitzaion haurra jaiotako baserrira igande arratsaldean auzoko emakumeek egiten zuten bisitari. Gehienetan emakumeak besterik ez ziren joaten eta laguntza txiki bat eramaten zuten. Etxekoek esker onez afari-merienda ematen zieten bisitariei.

Hernaniko Ereñotzu entitate txikian *atsolorra* berreskuratu dute. Horretarako, besteak beste, ikerketa-lan txiki bat egin zen 2015. eta 2016. urteetan auzoan, *atsolorraren* nondik norakoak hobeto ezagutzeko. Horretarako dokumentazio-lana eta landa-lana egin ziren eta bi iturri horietatik jasotako informazioarekin osatua da artikulu hau.

*Atsolorraz* gain, jaiotzaren inguruko bestelako igarobide-errituez, emakumez eta horien sozializazioaz, gizarte komunitarioaz eta nekaritza-munduaz ere hitz egingo dugu artikulu honetan.

**GAKO-HITZAK:** *Atsolorra* · Jaiotza-erritua · Bisita · Elizan sartzea · Emakumeen espazioak.

## ***Atsolorra*, a Basque birth ritual. Testimonies from Ereñotzu**

*Atsolorra* is a ritual related to the birth of a new baby that was once common practice in the Basque Country, although it has now fallen into (almost total) disuse throughout the entire region. Various efforts are nevertheless underway to recover it in some towns. *Atsolorra* is the name given to the visit made by local women on Sunday afternoon to the farmhouse of the newborn baby's family. The visiting party was almost always made up exclusively of women, and would usually bring a small gift to help the family. In turn, the family would show its appreciation by offering the visitors a late tea-early supper.

The inhabitants of Ereñotzu, a small neighbourhood within the municipality of Hernani, have succeeded in recovering the practice of *atsolorra*. Consequently, a research study was conducted between 2015 and 2016 in the neighbourhood with the aim of gaining a more in-depth understanding of this custom. The present paper presents the information gathered from both documentary sources and the fieldwork carried out.

In addition to *atsolorra*, the paper also analyses other rituals linked to the birth of a new baby, women and their socialisation, social communication and the rural world.

**KEY WORDS:** *Atsolorra* · Birth ritual · Visit, going to church · Women's spaces.

## 1. Nondik norakoak

Artikulu honen helburua da *atsolorra* izeneko jaiotza-errituaren nondik norakoak azaltzea. 2015. eta 2016. urteetan Hernaniko Ereñotzu entitate txikian egindako ikerlan bat du abiapuntu. Ikerketa-lan horretan erabilitako bi euskarri nagusi dira eskuartean dugun artikulu honen ardatz: batetik, landa-lanean egindako elkarrizketak, eta bestetik, dokumentazio-lanean jasotako hainbat datu esanguratsu. Ikusiko dugun bezala, eta Mari Karmen Basterretxea (2015: 1) antropologoak dioenez, *atsolorra* «euskaldunon jaiotza erritua da». Honenbestez, igarobide-erritu oro bezala, aldez aurretik ongi finkatutako ezaugarriak ditu, gizarteak, mendez mende, auzoz auzo eta etxez etxe errepikatu dituenak. Horiek guztiak jaso eta aztertzea izan zen orduko lanaren eta eskuartean dugun idatziaren helburua.

Artikulu honetan zehar, *atsolorraz* gain, jaiotzaren gaineko erritu erlijiosoak ere aztertuko ditugu, jeneralean aurretik egiten zirenak, nagusiak *Bataioa* eta *Elizan sartzea*. Ondoren, saiatuko gara erritual hau komunitateak zituen konpromiso zabalagoen testuinguruan kokatzen, eta horretarako *Bisita* aztertuko dugu eta hori nola betetzen zen, bizitzako igarobide-une nagusietan, hala nola jaiotzan, gaixotasunean eta heriotzan. Bukatzeko, duela oso gutxi arte komunitatean bizitzeak izan dituen ezaugarri batzuk azalduko ditugu.

Esan bezala, Hernaniko partean kokatua dagoen Ereñotzu entitate txikian egin zen ikerketa-lana. 2015ean 630 biztanle zituen auzoak, nagusiki baserriz eta duela hamarkada batzuk sortutako nukleo urbano txiki batez osatua. Beraz, baserrigunea izan da duela oso gutxi arte, eta halako bizimodua eta ohiturak mantendu ditu oraintsu arte. Ereñotzuko auzo-udalak eskatuta, 70eko hamarkadan galdu eta 2012an berreskuratu berri duten *atsolorraren* ohiturari buruzko ikerketa-lan xumea egin genuen orduan.

Lanaren helburua izan zen garai bateko *atsolorra* nola egiten zen ahalik eta zehatzen jakitea eta jasotzea. Izan ere, *atsolorra* ezagutu zuten auzoko kide gehienek adinean oso aurrera egin dute eta uste gutxienean hori eta beste hainbat ezagutza eramango dituzte berekin eta betiko. Beraz, horretarako auzoko hainbat lagun elkarrizketatu genituen. Jasotako materialarekin artikulu bat argitaratu zen *Hernaniko Kronika* egunkarian (Lekuona, 2016) eta hamar minutu eskaseko dokumental labur bat egin zen (Ereñotzuko Auzo Udala, 2016), jasotako informazioa ongi bilduta eta edonoren eskura gera zedin. Geroztik 2017. urteko Hernaniko urtekarian ere artikulua argitaratu zen (Lekuona, 2017).

Guztira hamaika elkarrizketa egin ziren (elkarrizketatutako pertsonen zerrenda bibliografia atalaren ondoren dago). Gehienetan propio gaiari buruz hitz egiteko egindako elkarrizketak ziren; beste batzuetan, berriz, elkarrizketa zabalago baten parte ziren *atsolorrari* buruz hitz egiten zuten testigantzak. Elkarrizketa gehienetan zehazki *atsolorrari* buruz hitz egiteko galdetegi bat erabili zen. Bertan, *atsolorraren*, baina baita *bataioaren*, *elizan sartzearen*, *bisitaren* eta auzoko bizimoduaren gaineko galderak zeuden.

Artikulu honetan Ereñotzu auzoan egindako lan haren berri eman nahi dugu. Horrez gain, lana egiteko bildutako dokumentazioarekin osatu da artikulua. Edukiari dagokionez, artikuluan ez dugu soilik atsolorrari buruz hitz egingo, atsolorra gizarte konplexu baten adierazgarri bat besterik ez baita. Horregatik, besteak beste, nekazaritza-munduaz, gizarte komunitarioaz, igarobide-errituez, emakumeaz eta berorren sozializazioaz hitz egingo dugu. Ikusiko dugu emakumeek ongi ikasitako betebeharrak izaten zituztela eta betebeharrak horiek nolabaiteko errekonozimendua eta boterea ematen zirela. Lan honetan ustezko botere horretaz ere hitz egingo dugu eta zeregin horiek nolako eragina zuten emakumeen bizitzetan, «aspectos que inciden en esa preparación para ejercer el poder o por el contrario, vehicularlas al no poder» Del Valle (1996: 61) antropologoaren esanetan.

Inondik inora, artikuluan zehar jorratuko diren gaiak emankorrak (izan) dira Euskal Herrian. Nolabait mugatu behar zen ordea, eta lana bukatu zen eta eskatutako materiala argitara eman zen, baina ikerketan zehar agertutako guztiak ez ziren material horietan jaso, Barley (1983: 232-233) antropologoak zioen bezala, landa-lana bukatzearen arrazoia beti baita arrazoi teorikoa, ez erreala. Hain zuzen ere, bilketa-lan horietan jaso diren eta askotan leku faltagatik agerian jarri ez diren kontuak azaltzea da artikulu honen helburua. Irakurleak ez du tesi sakonik aurkituko testu honetan, dokumentazio-lanean aurkitutako informazioa eta ahozko testigantzen bilduma bat baino.

Asko jota, emakumeen bizimoduaren idealizazioa jarri nahiko genuke kolokan artikulu honetan, Del Valle esandakoaren bidetik eta, batez ere, emakumeen ahotik jasotako testigantzen bitartez.



**1. irudia. Ustezko Atsolorra. Fagollagako euskal sukaldaritza. Ixak Salaberria. Hiria argitaletxea. 2005.**

## 2. Jaiotzaren gaineko igarobide-errituak

Jakina da gizarte guztietan edo gehienetan, behinik behin, bizitzako une garrantzitsuetan halako igarobide-errituak ezarri direla. Haien helburua jaiotza bezalako ekintza garrantzitsu batek sor ditzakeen beldur, uste, urduritasun eta abar bideratzea da eta horretarako gertaera horren inguruko hainbat ekintza erritu bihurtu ditu gizakiak. Erritu horiek mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi igaro dira, jaiotza bezalako gertaeretan behin eta berriz errepikatuz. Ekintza hauek, gainera, asko dute sozialetik, eta gizarteak hala ezarritako ekintza erritualak dira, gertuko gizataldeak, kasu honetan auzoak, espero dituenak.

### 2.1. Bataioa

Azken mendeetan gizarte tradizionalen bataioa izan da elizak eta gizarteak araututako igarobide-erritu nagusia. Beti egiten zen eta normalean, gainera, premia handiarekin, besteak beste, haur jaioberrien hilkortasun-tasak oso handiak zirelako. Horregatik, haurra jaiotze berehala samar saiatzen ziren bataiatzen. Gauzak horrela, askotan ama bera ez zen joaten jaioberriaren bataioa eta familiako edo gertuko emakumeren batek eramaten zuen haurra besoetan. Gizarte oso erlijiosoa izanik, pentsatzen zuten bataiatu gabeko haurra hilez gero, ez zuela lekurik lur santua hartzeko, kanposantuan edo hilerrian, alegia, eta dirudenez etxe kanpoko teilatupean lurperatu behar izaten zen bataiatu gabeko haurraren gorpua. Hori saiheste aldera, komeni zen ahalik eta azkarren bataiatzea haurra. Halaxe diote Euskal Herrian zehar gai honen gainean jasotako testigantzek:

Jaiotzarekin batera bataioa zetorren. Hori ahalik eta lasterren gertatzen zen, zeren eta haurraren heriotza tasa handia zen, eta linbo ilun eta zehaztugabearen beldurra presente zegoen etxe guztietan. Bataioa ez zen ospatzen, eta oso zeremonia arrunta zen. Ez zen gauza handirik behar: aita-ama pontekoak, lekukoak, eta apaiza; eta, noski, umea. Bataioa sakramentu garrantzitsua zen, eta da, Elizarentzat eta baita haurarentzat ere (Berriochoa, 2010: 188).

Edonola ere, bataioa hurrenkera zehatzeko pausoen lehenengo katebegia besterik ez zen. Haren ondoren elizan sartzea eta atsolorra etorriko ziren.

### 2.2. Elizan sartzea

Umearen bedeinkazioa bezain garrantzitsua zen amak umea izan eta elizan sartu aurreko purifikazio-erritua. Ama ezin zen bere horretan sartu elizara eta erditu ondoren bertara joaten zen lehenengo txandan halako bedeinkazio berezia eman behar zion apaizak elizan sartu aurretik, eliza atarian.

Uraren eta gatzaren bitartez egiten zen erritu hori, XX. mendera arte, amaren *Benedictio Post Partumarekin* azpimarratzen zen, hau da, amaren *elizan-sartzearekin* eta haurraren aurkezpenarekin. Ordura arte ama ez zen etxetik irteten, eta ateratzen bazen, teila baten azpian egiten zuen, teilatuaren eta etxearen asoziazioa azpimarratuz. (...) (orri-oinean: Umea bataiatu eta handik astebetara edo aste parera izaten zen elizan-sartzea: amak umea elizara lehen aldiz sartu eta Jaunari aurkezten zion umea) (Berriochoa, 2010: 188).

Ama erditu berriaren ohiko zeregina zen antzina eta Euskal Herri osoan ezaguna zen. Izenak ere asko ditu, ekintzaren garrantziaren adierazgarri. Ereñotzun, batik bat, *elizan sartzea* izena ematen zitzaion ekitaldi honi. Badirudi hirurogeiko hamarkadan utzi ziotela egiteari, orduetik aurrera ama eta haurra bataiatzen baitziren bataioan bertan:

La mujer que había dado a luz recibía una bendición especial antes de entrar en la iglesia por primera vez después del parto. Este rito se conoció como práctica habitual (...) sin embargo no existía ningún precepto eclesiástico que lo obligara, el Ritual Romano se refiere a él como costumbre «piadosa y laudable». La bendición *post partum* dejó de practicarse en la década de los sesenta según constatan las encuestas. Por estas fechas se aplicó en las parroquias el nuevo ritual del Bautismo en el que se incluía la bendición de la madre y del padre a continuación de la ceremonia del bautismo del niño. (...) Los nombres con los que se designaba este acto eran variados: salida a la iglesia (Salvatierra-A), la salida (Durango, Portugalete-B), *elizan sartzea/eleiz sartzea* (Berastegi), *elizan sartzea/eleizan sartzea* (Abadiano, Iholdi, Beasain, Elgoibar, Sara-L, Goizueta, Lekunberri) (Barandiaran; Manterola, 1998: 192-194).

Bistan denez, ohiko erritua zen elizan sartzea eta Euskal Herriko bazter askotan jaso dute adituek. Julio Caro Barojak ere hala jaso zuen Nafarroako Bera herrian, Estornes Lasak idatzi zuenez:

Testimonio de Caro Baroja: «Misa de parida», en Vera (Nav.). Entre los ritos relacionados con el nacimiento, uno de los más significativos es el que estaban obligadas a llevar a cabo las mujeres al ir a «misa de parida» en Vera y otros pueblos cercanos, hasta comienzos de siglo. Iban a la iglesia con una teja puesta en la cabeza, para dar a entender que hasta el momento de la purificación en el templo no habían transpuesto el umbral de su casa. Si antes de la misa tenían que salir a los alrededores de aquella por algún motivo, siempre se ponían la teja. La casa les «protegía» (Estornes Lasa, 1984: 442-443).

Behin eta berriz aipatzen da dokumentu zaharretan, eta hala jaso da Ereñotzun ere, emakumea ezin zela etxetik atera elizan sartzea egin gabe. Etxetik atera behar izanez gero, teila buruan jarrita ateratzeko obligazioa zuen. Denboraren poderioz teilaren orde zapia erabili zen. Ereñotzun elkarrizketatuek ez zuten teilaren erabilera ezagutu, baina aurrekoei entzuna zieten eta norbaitek inoiz ikusi ere egin zuela esan zuen; edonola ere, guztiek betetzen zuten zorrotzago edo malguxeago etxetik ateratzeko debekua. Alegia, ezinbestekoa zenean bakarrik ateratzen ziren, eta beti etxetik urrundu gabe ibiltzen ziren. Txilibita baserriko Maritxu Oiarbidek gogoan du Donostiako ospitalean erditu, etxeratu eta biharamonean, leihoan zegoela, amaginarrebak kargu hartu ziola burua agerian zeramalako:

Nik aurrenekoa izandu nunian, esaten dizut, ba, klaro, residentziyan izandu nun eta etxea etorri nintzan eta hurrengo egunean, zea, umean pixa-oihala edo zabaltzea atera nintzan eta seittuan esan zian, ne amagiñarrebak, esan zian: «Maria, Maria, zu oraindik ez zea elizan sartu ta zertako atea zea?». Eta seittuan pañulu bat eman zian, osea, burua tapatuta, hori bai... Denbora batin teila jartzen omen zuten... Gure amak, nei esan izandu nau, orduan teila jarrita ateatzen ziala... Eta ordun esan niyon, zea: «Ez dela kanpoa atera behar? Eta atzo nondik etorri nintzan ba?» (Ereñotzuko Auzo Udala, 2016).



Euskal Herriko Atlas Etnografikoan ageri denez, erditu eta elizan sartu bitartean etxetik ez ateratzeko debekua nahiko zabaldua zegoen Euskal Herrian, Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan, behinik behin. Teila buruan jartzearena, berriz, ez dago hain dokumentatuta Bizkaian eta Araban, baina oso dokumentatuta dago Gipuzkoan, eta Lapurdin eta Nafarroan ere dokumentatua dago. Edonola ere, zorrotz bete beharreko baldintzak izaten omen ziren:

La puerpera debía cumplir una larga serie de prescripciones como no salir de casa hasta la presentación en la iglesia cuarenta días más tarde. Si tenía necesidad perentoria de salir debía cubrirse la cabeza con una teja que simbolizaba la protección de la casa (Erkoreka, 1987: 196-197).

Ez da kasualitatea teila zati bat jarri behar izatea buru gainean; izan ere, teilak etxearen babesa sinbolizatzen du, emakumea etxetik atera ez balitz bezalaxe, sinbolikoki etxeak teila ordezkutzen du, atal horrek osotasuna sinbolizatzen du:

Durante el tiempo que transcurría entre el parto y la entrada ritual a la iglesia la puérpera debía permanecer recluida en su casa y ni siquiera tenía obligación de asistir a misa los domingos y fiestas de precepto. El origen de esta costumbre era de naturaleza religiosa ya que según la ley mosaica la mujer que hubiera tenido un hijo quedaba impura y no debía tocar ninguna cosa santa ni ir al Santuario hasta cumplirse los cuarenta días de su purificación (Levítico, 12, 2-8). (...) Durante este periodo de reclusión, si la mujer se veía en la necesidad de salir fuera de casa para tender la ropa, recoger leña o ir al huerto o al corral debía hacerlo con la cabeza cubierta por una teja tomada de su propio tejado, manteniéndola de ese modo hasta entrar nuevamente en la casa. Esta antigua práctica es reflejo de una mentalidad según la cual el todo está representado por la parte, en este caso la casa por el techado y éste por la teja, de manera que mientras la mujer permanece bajo una teja no rompe la prescripción que le prohíbe salir de casa (Barandiaran; Manterola, 1998: 189-190).

Hasiera batean berrogei egun uzten baziren ere, epea laburtzen joan zen eta normalean ama ondo sentitzen zenean joaten zen elizara, alde zurretik apaiza jakinaren gainean jarrita, sartu aurretik halako bedeinkazioa eman ziezaion:

La puérpera aguardaba a que transcurriesen los cuarenta días después del parto para acudir al templo a recibir la bendición. (...) Este periodo de referencia religiosa se fue acortando con el transcurso del tiempo y acomodándose a las necesidades prácticas de las parturientas. (...) El rito tiene su origen en la ley judía que imponía a la madre de un primogénito un periodo de cuarenta días de purificación (Levít. 12, 2-8) tras el cual tenía lugar la presentación del hijo a Dios. La purificación preceptuada no se relacionaba con una mancha interna sino con una impureza corporal o legal. Según la mentalidad religiosa judaica el parto, al igual que las menstruaciones o el derrame de semen, eran considerados como una pérdida de vitalidad para el individuo, que por medio de ciertos ritos debía establecer su integridad y con ello su unión con Dios, fuente de la vida. Esta práctica de purificación ritual de la madre se introdujo en la Iglesia ya en el siglo IV. No siempre se comprendió este valor ritual y en ocasiones su infracción fue considerada pecado (Barandiaran; Manterola, 1998: 194-207).

Bazen, edonola ere, denboralditxo hura atsedean hartzeko erabiltzen zuenik. Hala gogoratzen du Txilibita baserriko Maritxu Oiarbidek, senide askoren artean bigarrena, amari, erditu ondoren, gelatik zergatik ez zen ateratzen galdetu zionean:

Zortzi egun pasatzen zittun, astebete, kuartotik atera gabe, eta nik esaten niyon: «ama, zeatik egoten ziñan, zea, hainbeste denbora?». Hoi geo galdetzen niyon, orduan ez, e! eta «Ai, gaixua, amonak esaten zidalako, egon hor, e, hor zauden bitartean deskantsuan zaude eta... Haik zian netzako bakaziyuk, zortzi egun haik eta behin handik ataezkeo...» Ta kanpun da etzakan ibiltzeikan, esaten dizut, emakumiak ez zakan kanpua ibiltzeikan, elizan sartu arte, baiño behin handik ataezkeo... zea, ostea, segittuan, lanean.

Lana gogotik egiten zuen emakumearentzat atsedenaldea izaten zen erditu ondoren gelatik atera gabe emandako egonaldi hura.

### 3. Atsolorra

Atsolorra ere, bataioarekin eta elizan sartzearekin batera, igarobide-erritua da, edo, zehazkiago esan, jaiotza-errituaren pauso bat da. Ikerketaren ardatza izanik, aparteko atala eskainiko diogu. Ez horregatik bakarrik; izan ere, atsolorrek badu ezaugarri garrantzitsua, aurrekoek ez dutena, eta honakoa da, hain zuzen ere: atsolorra ez da ekintza erlijioso (zenbaitek, seguraski horrexegatik, debekatu nahi izan zuen, aurrerago ikusiko dugun bezala) eta batzuen esanetan, atsolorra euskaldunon jaiotza-erritua da. Hori dela-eta, ekintza berezia da, sozialki erabat onartua, baina ekintza erlijiosoetatik kanpo geratzen dena. Batzuek diotenez, kristautasunaren aurreko gizartearen ezaugarria da, gizabanakoa gizarteko kide eta gizabanako aktibo zenekoa. Hurrengo lerroetan atsolorraren nondik norakoak zehaztuko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin, atsolor izenaren esanahia aztertuko dugu. Bigarrenik, atsolorra zehatz-mehatz aztertuko dugu. Bukatzeko, ikerketa eremua zabaldu eta atsolorrek Euskal Herrian, leku askotan eta izen ezberdinez, zein ezaugarri izan dituen aztertuko dugu.

#### 3.1. Izenaren gainekoak

*Atsolorra* hitza iluna edo, gutxienez, misteriotsua da erabiltzaileentzat; zer esanik ez, lehen aldiz entzun dutenentzat. Lehenengo kolpean, ez da hitz atsegina, are gehiago, askorentzat hitz «itsusia» ere bada, batez ere, *atso*- lehenengo osagaiari erreparatuz gero. Ereñotzu auzoan egindako elkarrizketetan hitzaren esanahia zein izan litekeen galdetu zaie elkarrizketatuei eta erantzunak asko eta oso ezberdinak izan dira: batzuen esanetan, atsolorra izena eman zitzaion ospakizunari, batez ere, adineko emakumeak joaten zirelako elkartzeko haletara, etxeetako emakume zaharrenak jeneralean, joateko moduan ziren bitartean, behinik behin. Hori beraz, lehenengo irakurketa: atsolorra emakume zaharren bilkura izango litzateke. Hau da, gainera, usterik zabalduena.

*Atso* hitzak hainbat adiera izan ditu eta ditu oraindik ere. Ezaguna da askorentzat atsoa, ezkondu eta haurrik ezin izan zezakeen emakumea zela, antzua, alegia (betiere kontuan izanda garaiko pentsaeran ezkondu eta haurrak izatea eskutik zetozela). Beste batzuentzat, *atso* hitzak emakume zaharra esan nahi du, *agure* hitzaren parekoa, baina Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan dioenez, «hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke “adineko”-ren sinonimo osoa balitz bezala». Beste askorentzat, ordea, eta Ereñotzu auzoan elkarrizketatuek hala diote, atsoa esaten zieten senarrek normalean beren emazteei. Seguraski hori da atsolorra hitzaren etimologia, emakume lorra, alegia, emakumeen bilkura.

Irakurketa zehatzagorik egiten duenik ere izan da elkarrizketatuen artean, atsolorretan gertatzen zen ustezko gorabeheren gainean eraikia, alegia, *-lor* hori *lur* hitzetik datorrela, zenbaitetan bertaratzen ziren emakumeak, zurruta lagun, lurrean barrena ibiltzen zirelako. Bistan denez, planteamendu horrek ez du zentzu handirik, kontuan izanda atsolor guztiak ez zirela berdinak, are gehiago, guztietan ez zirela lurrean barrena ibiltzen emakumeak, ezta gutxiago ere.

*Alor* hitza ere tartean izan daitekeela pentsatzen duenik ere bada. *Alor* hitzak eremua, espazio mugatua esan nahi du eta atsolorraren kasuan, atsoentzat mugatutako espazio (fisikoa) izango litzateke; ez dirudi, hala ere, hori denik azalpenik egokiena.

*-lor* osagaiak ere sortzen ditu hainbat zalantza; izan ere, egun ezagutzen den *lor* bakarra, gogoan besterik ez bada ere, garai batean basoan leku aldrebesetan enborrak ateratzeko erabiltzen zen teknika da: enborrak *lorrean* ateratzen ziren. Funtsean, enborrak idi-pareari lotzen zitzaizkion zuzenean eta tiraka eta arrastaka ateratzen ziren leku zailetatik. Teknika ezaguna eta oso erabilia izan da duela gutxi arte. Ereñotzun sortutako Txirrita bertsolariak ere aipatzen du teknika hori bertako ermita nola eraiki zuten kontatzen duten bertso batzuetan:

«Nikolas aundi arotz burua / Dana guzien aurrian. / Nere aita eta “Bizarro” berriz / Ganaduakin lorrian. / Beste batzuek arriya biltzen / Alkatxuin’go larrian. / Ermitatxo au egin ziguten / Txokolateren lurrian» (Zavala, 1992: 20).

Inguru honetan besterik ezagutzen ez den arren, *-lor* osagaia beste zenbait hitzetan mantendu da, hala nola *gorpulorra* edota *iralorra*. Nahiz eta gipuzkeran arrasto gutxi mantendu, oso ongi mantendu da Bizkaian eta egundaino erabili izan da hitza beste batzuen osagarri, esate baterako, *arkumelorra* edota jarraian aipatuko dugun *iralorra*:

*Ira-lorra, azpigarri-lorra, acarreo del helecho en solidaridad vecinal* (...) En Gautegiz-Arteaga (B) se ha consignado que los acarreos vecinales solidarios reciben el nombre de *lorrak*. Cuando durante el mes de octubre en que se realizaba la recogida del helecho, una familia no podía llevar a cabo la misma (...) se le ayudaba en la labor de corte y acarreo, lo que se denominaba *azpigarri-lorra* (Oar-Arteta; Peña, 2008: 68).



Hona Caro Barojak jasotako beste aipamen bat:

En Vizcaya se conoció a este respecto una costumbre conocida como *lorra*. Dicha *lorra* o aportamiento podía ser de estiércol, de ganado lanar, o de madera. A modo de ejemplo, digamos que en el caso de que un campesino, por alguna causa especial, no dispusiese del necesario para cubrir sus necesidades, solicita una *lorra* a sus vecinos. Estos se comprometían a aportar una porción, cada cual en la medida de sus posibilidades. Incluso transportaban ellos mismos el estiércol a casa del interesado. Después éste debía obsequiarles con una merienda, conocida indistintamente por *lorra* o *totuena* (Caro Baroja, 1987: 228).

Horrelako testuinguruan ulertu behar dugu atsolorra hitzaren esanahia ere, alegia, auzoko emakumeek elkarri ematen zioten laguntza zen atsolorra; bilera horretan, haurra izandako amak auzoko emakumeen laguntza jasotzen zuen haurra aurrera ateratzeko.

Auzokoek elkarri egiten zizkieten beste laguntza gehiagoren artean, lanaz gainera, elkarri gauzetan ematen zieten laguntza dugu, lorra deitua. Unamuno bera ere arduratu zen arazo honetaz benetako elkar laguntza hau ezagutzeari harririk, honela idazteraino: «*Es una importante manifestación de solidaridad social*» (Arregi, 1984: 613).

Atsolorra ulertzeko, beste hainbat lor bezalaxe, Euskal Herriaren izaera kolektibora jo behar da, elkarri laguntzea beharra eta betekizuna zen garai hartara; testuinguru horretan atsolorra auzoek hartzen zuten beste konpromiso bat zen:

Elkartasunaren oinarriak zaharrak ziren Euskal Herrian. Elkarrekiko laguntza oso arrunta zen zenbait lanetan: laiaketan, gariaren uzta jasotzean eta harri-jotzean, artazuriketean... Lan horietan eskulan asko behar zen, eta familia urria zenean, batik bat, auzokoek eta familia urrutikoek laguntzen zuten. Lan horiek elkarrekikotasun oinarriaren arabera gauzatzen ziren. Thalamasek *ordeak* edo *lan-trukeak* deitzen die. Horrelako lanak merienda edo afari batekin bukatzen ziren. (...) Elkartasunezko beste era bat *lorrak* izenekoak ziren. Askotan apaizak pulpitutik laguntza eskatzen zuen familia behartsu batentzat. Ez zen lana bakarrik, baizik eta simaurra (*simaur-lorra*), artaldea osatzeko (*bildots-lorra*), etxea egiteko zura (*zur-lorra*), gurdia eta behiak uztea *sanmartingoa* egiteko (*etxe-aldatze*), edo ezkonberriak baserrian ezartzeko (*arigotza*) (Berriochoa, 2010: 208).

Auzokoek beste zereginetarako bezalaxe ama erditu berriari adierazitako laguntza-eskaintza besterik ez da atsolorra:

Hay otros (trabajos de vecindad) que se hacen sin compensación y se llaman «lorra», acarreo, y consiste en acarrear estiércol, leña, helecho..., al que se quedó sin él. Y también la llamada «bildots-lorra», por la que cada vecino regalaba un cordero al que hubiese perdido su rebaño o comenzara a formar el suyo (Estomba; Arrinda, 1982: 126-127).

Euskaltzaindiaren Hiztegiari jasotako sarreran atsolor hitza bisitaren sinonimoa da: emakume *erditu berriari auzoko emakumeek egiten dioten ikustaldia; ikustaldi horretan egiten den oparia*.

Emakumeen juntadizoa da, beraz, atsolorra. Ez du esanahi ilun ezta itsusirik. Horrez gain, eta aurretik aipatu bezala, atsolorra ez zen Ereñotzu auzoan bakarrik egiten. Euskal Herriko zenbait herritan bakarrik ageri da dokumentatua, baina jakina da Ereñotzun egiteaz gain, Erreterian, Oiartzunen eta Urnietan ere egiten zela, besteak beste. Jakin badakigu Euskal Herri osoko hainbat lekutan egiten zitzaiola amari bisita, atsolorra izenekoa, esate baterako, Oñatin eta Antzuolan. Egia da, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan dagoela dokumentatua, beste zenbait lekutan baino gehiago, baina dokumentuek diote Nafarroan eta Iparraldean ere egiten zela; ez dago, ordea, Araban egiten zela esateko arrastorik. Aipatutako leku gehienetan, Ereñotzun bezalaxe, usadioa galdu egin zen duela hamarkada batzuk eta azken urteotan berreskuratzeko ahaleginetan ari dira zenbait lekutan, esate baterako, Orduñan eta Oiartzunen. Zorionez oraindik badira ohitura zahar hura ezagutu zutenak.

Atsolorra ez da, ordea, Euskal Herriari dagokion ospakizuna, askoz ere urrunago ere topa baitaitezke jaiotza-erritu honen tankerako ospakizunak. Luis Mari Zaldúa Euskal Filologian doktore eta ikertzaileak aurrez aurreko elkarrizketa batean ohartarazi bezala, Perrault anaiei esker zabaldu zen Basoko Loti Ederraren herri-ipuinen hasieran inguruko emakumeek bisita egin zioten errege-erreginen haur jaioberriari eta denek eman zioten bedeinkapena (batek izan ezik, baina hori beste kontu bat da). Bisita hori atsolorraren adierazpen europarra izango litzateke. Zalduaren esanetan, entzuna baitu atsolorraren kontzeptua Urnieta aldean, atsolorra hitzak «juntadizoa» adierazi nahi du.

Europaz haratago munduko bazter askotan antzeko ezaugarriak dituen elkartze bat egiten da, jaiotzeaz dauden edo jaiotako haurren bueltan. *Baby shower* ([www.planetamama.com](http://www.planetamama.com)) izenez ezagutzen da munduko leku askotan, baina izen eta aldaera asko ditu: zenbait lekutan haurra jaiotze baino lehen egiten da, beste batzuetan gizonek ere parte hartzen dute, etab. Baina oinarri-oinarrian dagoena ama eta haur jaioberriari egindako bisita da. Jaiotza-errituaren arketipoaz hitz egiteko moduan izango ginatke. Urrutikoetxeak (1999: 6) esan bezala, ez da erraza kultura eta arketipoen arteko muga sumatzea, «entre realidad histórica y referentes míticos».

## 3.2. Ezaugarriak

Hurrengo lerroetan atsolorra zehazki Ereñotzun nola gauzatzen zen aztertuko dugu. Euskal Herri penintsularrean, mendietan sakabanatutako baserriez osatutako auzo txiki batean atsolorra zer zen eta nola egiten zen ikusiko dugu. Atsolorra igarobide-erritua den heinean, pauso zehatz eta ezagunak bete behar ditu. Atal honetan atsolorraren ezaugarri nabariak eta errepikakorrenak aipatuko ditugu.

### 3.2.1. Igande arratsaldean

Arestian aipatu bezala, atsolorraren aurretik, haurra bataiatu behar izaten zen, azkar samar normalean, eta amak elizan sartu behar izaten zuen bizkortzen zenean. Behin hori eginda, gehiegi atzeratu gabe atsolorra eskaintzen zuen amak, gutxi gorabehera jaiotze eta hilabete batera. Igande arratsaldeetan izaten zen beti juntadizoa, seguraski hori zelako egunik lasaia lanez gainezkako baserrietan.

Laurak edo bostak aldera hasten ziren, informanteen arabera, emakumeak biltzen haurra izandako baserrira. Iritsi ahala, haurra ikusi, etxekoei kasu egin eta mahaian eseritzen ziren emakumeak, gehiegi luzatu gabe.

Urte sasoiaren arabera, goizago edo lehenago ilundu, zertxobait luzatzen zen egonaldia; hala ere, oro har, zortziak alderako edo etxerako bidean ziren bisitari gehienak. Etorri bezala, joan ere elkarren arrimuan joaten ziren, oraingo kotxerik eta kale-argirik ez zegoen garai hartan. Auzoko bizilagun batzuek gogoratzen dute zenbaitetan etxerako bueltan ujuak eta algarak entzuten zirela baserrietako bide ilunetan.

### 3.2.2. *Otordu bikaina*

Elkarrizketatutako emakume guztiak bat datoz horretan: atsolorrean ematen zen otordua ez zen nolana hiko; are gehiago, zenbaiten arabera, kategoriko otordua izaten zen, urtean zehar egiten ziren gutxi bezalakoa. Aipatzen duten beste kontu bat da, atsolor guztietan, gutxi edo gehiago, otordua beti bertsua izaten zela: hasteko, haragi gisatua, normalean, ardiarena; ondoren, xerra piper morroekin; eta bukatzeko, postreren bat, askotan arrosesnea, beste batzuetan gazta eta intxaurrak, etab. Baten batzuek esan dutenez, aurretik urdaiazpiko-tortilla, edota ondoren flana jarri izan zuten berek emandako atsolorretan. Pentsa liteke, etxearen arabera eta urteen poderioz gauzak aldatu egingo zirela. Edonola ere, ez zen nolana hiko otordua izaten ordurako.

Edaririk ere ez zen falta izaten. Sagardoaren lurraldean egonik, sagardoa eta pitarra arruntak ziren edozein etxetako mahaian eta egun hartan ere gauzarik arruntena zen. Ardoa ere izaten omen zen batzuetan. Eta kafearekin batera pattarra ere ez zen falta izaten: koñaka, anisa, edo dena delakoa. Emakumeek esaten dutenez, han inor ez zen geratzen haiek probatu gabe, eta zenbaitetan askotxo ere edaten omen zuten. Emakumeek noiznahi ateratzea eta edatea (ia) libre ez zuten garai hartan, transgresioa zen edaten ibiltzea eta ondorengo hainbat kontu barregarri gertatzea.

### 3.2.3. *Kontu-kontari*

Bapo jan ondoren, tertuliak jarraitzen omen zuen. Zenbaitetan jokoan aritzen ziren batzuk, beste batzuk kontu-kontari aritzen ziren bitartean. Denetarik izaten zuten hizpide: etxeko kontuak, auzokoak, batek esandakoak eta besteak egindakoak... Umorerik ez omen zen falta izaten, ezta barrerik ere, eta zenbaitetan algarak ederrak ere izaten omen ziren. Edadeko emakumeak eta gazteak hizketan aritzen ziren bitartean, neskato gazteak gustura egoten omen ziren haien kontuak entzuten, ikasi eta mundua ulertu nahian. Miren Aranburu elkarrizketatuak ongi gogoratzen du bera umea zela nola entzun zion atso bati, beste bati ahopeka esaten: «Halako baserrian neska gazteari *suge gorriak heldu zion* eta laster izango dinagu atsolorra han ere» barre txikien artean.

Galdetutakoen artean, ordea, inork ez du gogoratzen musika izaten zenik, inolako instrumenturik ez, ezta bertsorik edo kanturik. Ereñotzuko beheko eskolako maistrak seme-alabaren baten atsolorra eman zuenean besterik ez dute gogoan musika

entzun izana; orduan jende asko bildu omen zen atsolorrera eta soinujolea jarri omen zuten. Oiartzunen, ostera, musika izaten zela gogoratzen dute (Oiartzungo Udala, 2015: 24).

#### 3.2.4. *Emakume-festa*

Bilera edo festa hauetarako auzoko emakumeak biltzen ziren. Ereñotzun elkarrizketatutakoek diotenez, zenbaitetan etxeko gizonen bat edo bisitariren bat izaten zen gizonezkoa, baina ia beti emakumeak izaten ziren biltzen zirenak. Elkarrizketatu batek ongi gogoratzen du nola oraindik ume koskorra zela, ama hila zutela eta, aitak bidaltzen zuen halako baserrira, atsolorra zegoela eta. Zalantzarik gabe, eta izenak argi adierazten duen bezala, emakumeen bilera zen hura eta apenas ageri zen gizonezkoren bat.

Erreneriako Salvador Zapirain «Ataño» bertsolariak *Txantxangorri kantaria* liburuan, XX. mendeko baserriko bizimoduaren argazki kostunbristan atsolorra aipatzen du eta bertan dioenez, haurraren aitak etxeko lanean lagundu behar izaten zuen egun horretan. Agian horri jarraiki zabaldu da gizonezkoek egun horretan otordua ematen lagundu behar zutelako ideia. Atsolorra ezagutu duten ereñotzuarrek, ordea, oso bestelako bizipenak izan zituzten, eta diotenez, atsolorra zen egunean ere, beste edozein egunetan bezalaxe, salbuespenak salbuespen, gizasemeek ez zuten ezer egiten etxean. Beraz, informante hauen arabera, ez da egia gizonezkoek parte-hartze aktiboa zutenik atsolorrean. Egun horretan gizasemeak baserrian lanean edo tabernan egoten ziren.

#### 3.2.5. *Bisita eman*

Bisita eman edo egin fisikoki egiten zen arren, alegia, haurra jaiotako baserrira bertaratuta, bisita ematea ere bazen beste zerbait, hain zuzen ere, haurra izandako familiari laguntza ematea, normalean ekonomikoa. Atsolorrera zerbait eramaten zuten galdetuta, erantzun ezberdinak jasotzen dira: batzuek diote, jatekoa eramaten zutela, eta argi dago, esku-hutsik ezin zela joan. Oiartzunen duela urte gutxi jasotako testigantzen arabera, jatekoa eramaten zuten bisitariak (Oiartzungo Udala, 2015: 24). Ereñotzun, berriz, jatekorik ez zuten eramaten, baina beti eramaten zuten dirua, familiari laguntzeko otorduko eta haur txikiaren jaiotza zela-eta suerta zitezkeen gastuak ordaintzeko.

Elkarrizketatuen arabera, kantitate ezberdinak aipatzen dira: bost duro, hamar duro, hamar pezeta... Atsolorrean egindako gastua handia zela eta Txilibitako sukaldean eman/jaso beharrekoa bost pezetatik zazpi pezetara igo beharko zela gogoratzen du bertako Maritxu Oiari bidek. Aldez aurretik zehaztutako kantitatea zen eta auzotar guztiek ematen zuten kantitate bera. Hala ere, pentsatzekoa da, garaiaren arabera, gorabeherak izango zirela.

#### 3.2.6. *Ateraldia*

Arestian esan bezala, jaiotza-erritua da atsolorra eta horrenbestez, erritu batek dituen ezaugarriak betetzen ditu, besteak beste, gizartearen onspena du, adostutako pausoak jarraitzen ditu eta ekintza soziala da, gizartearen kohesioa

berresten duena. Ereñotzuko emakumeek irakurketa samurragoa egiten dute hala ere: atsolorra «festa» zen, «ateratzeko aitzakia» emakumea etxetik nekez eta are gutxiago bakarrik ateratzen zen garai hartan.

### 3.3. Atsolorra(k) Euskal Herrian

Arestian esan dugun bezala, atsolorra ez da Ereñotzun soilik egin den gertakaria. Inguruko zenbait herritan, guztietan ez bada ere, dokumentatuta dago atsolorra egiten zela: aipatu dugu Errenteriako «Ataño» bertsolariak deskribatzen duela. Horrez gain, Oiartzun eta Urnieta herrietan, denak bertatik bertara, egiten zen atsolorra. Horiez gain, aspaldi dokumentatuta dago Euskal Herriko hainbat herritan egiten zela atsolorra, besteak beste, Zuberoan, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan:

Azkue recogió esa costumbre a principios de siglo (...) Estos regalos tenían nombres especiales: *ermakaria* (Arratia, Orozko-B), *ikuskeia* (Barkoxe-Z), *ikusari* (Haltsu-L), *karapaioa* (Arrasate-G), *martopila* (Arrona-G). También la visita tenía su nombre: *atsolor* o acarreo de viejas (Itziar-G), *atsolorreta* o fiesta de viejas (Markina-B, Amezketza-G), *atsobesta* (Bera-N), *bateoa* (Mendexa, Murelaga-B), *andraikustea* o visita de señoras (Dima-B) y *andreikustea* (Donibane-Garazi-BN) (Barandiaran; Manterola, 1998: 203-204).

Azken hamarkadetan galdu egin bada ere, jakin badakigu antzina ohitura zabala zela Euskal Herrian:

La puerpera recibía los días siguientes una serie de visitas ritualizadas por parte de amigas, vecinas y familiares femeninos que ofrecían regalos como gallinas, dulces o dinero. Tanto el regalo (*ikuskei*, *martopil*, *karapaio*...) como la propia visita ritual (*andra-ikustea*, *atsolorreta*, *bateoa*...) recibían nombres específicos que variaban de unas comarcas a otras de Euskal Herria (Erkoreka, 1987: 197).

Zenbaiten ustez, atsolorra bataioa bera baino garrantzitsuagoa zen. Bataioa egin beharreko zerbait zen, baina atsolorra zen ekitaldi soziala:

Las celebraciones vinculadas al nacimiento giraban en torno a la parturienta, *ume egin berria*. Esta era cumplimentada con visitas y obsequios que le llevaban sus parientes, hermanas, cuñadas y tías así como sus vecinas y amigas. Cuando la puérpera se restablecía correspondía a estos agasajos con una merienda o comida que en otros tiempos reunía a las mujeres que habían intervenido en el parto y que había aportado obsequios. Esta celebración era más importante que la correspondiente al bautismo y que sus participantes eran mayoritariamente mujeres. Tenía lugar a la salida del puerperio y recibía los nombres de *ermakariak*, *martopilak* y *atsolorra*. Ha sido constatada mayoritariamente en Gipuzkoa y también se ha celebrado en Bizkaia y en el norte de Navarra. Por el contrario en ninguna de las localidades alavesas encuestadas recuerdan que se hiciese ningún banquete tras el restablecimiento de la madre (Barandiaran; Manterola, 1998: 200-201).

Bistan denez, tokian tokiko aldaerak ditu usadio horrek, dela izen ezberdina, dela eraman beharrekoa, baina funtsean Euskal Herriko bazter gehienetan egiten zen usadioa zen atsolorra:

*Andrakuste*: Haur bat jaiotzean, haurra izan duen amari —batez ere lehenengoa denean— bixita egiten diote ahaide eta auzo diren emakumeek eskuikusiak eramanez: oilo, arraultzak, goxokiak, txokolatea... Izen bereziak ematen dizkiete eskuikusi hauei han eta hemen: *ikuskarriak* esaten diete Zuberoan eta atso-lorra Berastegin, e.a. Oraindik ere bizi da ohitura hori; gaur, ordea, haurjantziak eramaten dituzte auzoko emakumeek. (...) Erditze ostean ama berriz bizkortu zelarik, ikustera joan zitzaizkion emakumeei halakoxe arratsaldeko txiki bat ematen zien. Ospakizun honi *ermakariek* esaten diote Arratiako zenbait tokitan (Arregi, 1984: 608).

Hala ere, arestian aipatu duguna kontuan izanda, pentsa dezakegu atsolorra edo haurrari ongi etorria egiteko bilkura ez zela Euskal Herriko ohitura bakarrik izan.

#### 4. Bisita

Atsolorra ez zen, ordea, ekintza isolatua. Auzoko bizimoduan, elkarri laguntzeko hainbat betebeharrak izaten ziren. Inork beharra zuenean, auzokoek erantzun beharra izaten zuten, eta baziren nolabait ezinbesteko hainbat zeregin; atsolorra horietako bat zen. Konpromiso horiek normalean bizitzako une garrantzitsuekin lotutakoak ziren, hala nola jaiotakoan bisitan joan; inor gaixotzen zenean, larri samarra bazen, bisita eman; eta inor hildakoan familiari lagundu. Horietan guztietan bisita zen eman beharreko «laguntza» eta harekin batera, zenbaitetan meza-dirua, edo gastuatarako dirua, edota gozo-gauzak edo janaria.

La buena vecindad obligaba a visitar la casa del enfermo cuando el padecimiento se prolongaba, llevando presentes (...) Este rito (*visita eman dio*) se hacía incluso si la enfermedad no ere en principio grave o mortal, o tras el parto. Todavía hoy se mantiene en muchas de nuestras áreas rurales (Agirre Sorondo, 1996: 24-25).

Hala ere, auzoko elkarbizitzak bazituen beste zeregin batzuk, bisita eman behar ez bazen ere. Horrelakoak ziren Euskal Herri osoan hain ezaguna den auzolana (elizak eta ermitak egiteko, erretako baserriren bat konpontzeko eta abar) edota araldia, auzoko bideak konpontzeko betekizuna.

Lurleku edo inguru txiki bat okupatzen duen etxeen elkarrekin da auzoa. Auzokoek elkarrekiko laguntasun, harreman eta jaialdien eginbeharrak daramatzate; zeregin askotan laguntzea: gaixoaldian, heriotza eta lurrematean, jaiotza eta ezkontzan, abereen ezbeharretan, suaren eta gaitzbideen galeretan, etab. Horrela, auzoak, nahiz ekonomiako, nahiz gizarteko eta nahiz erlijiosozko eginbehar ugari zituen berekin. (...) Auzoartearen era bat «auzo-lana» izan da, dohaneko lana. Eta auzoartekoek erlazioak sortzen zuten beste egin behar ekonomiko bat «lorra» izan da. Lurgin batek, bere etxean nahiko ongarriketa ez zuenean, auzokoek artean etxez-etxe lorra eske itzultzen zen. Honen antzeko eginbehar ugari gehiago ere auzoartean ere baziren: hildakoak eramatea hiletan, haurgin berriari ikustaldia; toberak, etab. (Intxausti, 1985: 330).

Bistan denez, auzoen arteko elkarlana garrantzitsua zen, beharrezkoa askotan, eta derrigorrezkoa ere bai maiz.



#### 4.1. Bisitakoak izan

Ereñotzuko emakumeek diotenez, atsolorra bazen halako konpromisoa, baina ez zen obligazioa; are gehiago, emakumeak desiatzen egoten ziren bertara joateko, beraz, ez zen konpromiso handia.

El nacimiento lleva aparejado el correlativo bautismo. Ambos hechos se convierten en fiestas y ceremonias peculiares y visitas de parientes y vecinos. (...) Las *enfermedades* y *la muerte* son los otros dos acontecimientos familiares con repercusiones parentales y vecinales, además de las propiamente familiares. (...) Las visitas de parientes y aun de vecinos tiene lugar en caso de enfermedad y más todavía si el enfermo ha recibido el viático. Las visitas a la madre de un nuevo hijo le llevan obsequios como pueden ser galletas, bizcochos, vino dulce, etc. (...) Generalmente, el primer día de fiesta después del bautizo, se celebraba éste con una comida a la que se invitaba a algunos parientes y amigos (Estornes Lasa, 1984: 439-446).

Elkarrizketatuek diotenez, beren aurrekoek sortutako konpromisoak ziren horiek, eta haiek bete egiten zituzten. Horrenbestez, etxe bakoitzak bazekien zein etxetakoak zituen bisitakoak, eta berak —etxeak, familiak— nori eman behar zion bisita. Halaxe adirazten dute hizkeran bertan: «Guk bisita handia gendun», «Txilibitakoak bisitakoak ziren», «bisitakoak etortzen ziren» edota «bisita ematen zitzaien»... Bisita haietan eramaten zenari, dirua edo dena delakoari ere, *bisita* esaten zitzaion zenbaitetan: «Ezin bagenuen joan, *bisita* bidaltzen genuen neskakoskorra edo mutikoskorrekin».

#### 4.2. Emakumeen lanak

Badirudi, oro har, bisita, eta bereziki atsolorra, emakumeen ardura zela. Gogoratu behar dugu, emakumea nekazari-gizarte tradizional gehienetan bezalaxe, etxeke eremuari, eremu domestikoari, lotuta zegoela. Eta hala ikusten da emakumeei galdetuz gero; izan ere, emakumea egun seinalatuetan bakarrik ateratzen zela esaten dute, eta horregatik, besteak beste, zutela hain estimatuta atsolorra, etxetik ateratzeko aukera zelako. Emakumea, beraz, etxeari lotuta zegoen beti. Garaiko gizartearentzat etxea kontzeptu zabala zen eta bere baitan hartzen zituen baserria eta inguruko eremua, baina baita ere lurrak, bertako jendea, bertako hildakoen arimak... Oso kontzeptu zabala zen etxea beraz, eta hura zen emakumearen espazioa: horregatik, besteak beste, bera arduratzen zen hildakoen arimak zaintzeaz elizan, edota familia ordezkatzearaz atsolorra eta bisita bezalako ekintza sozialetan: emakumea etxearen ordezkari zen horrelakoetan eta horri zegokion ekintza horietan parte hartzea.

Todo nos remite a esa palabra clave de la bóveda social vasca. Etxe tendría un gran parecido con la griega *oikos*, en el sentido que no solo significaba la propia edificación, sino también la familia, los pertenecidos, los cultivos, el ganado (...) Pero no podemos olvidar que, como en el *oikos*, *etxe* se extiende hasta los límites de los pertenecidos en donde se colocaban los mojones (*mugarriak*) y hasta un espacio donde la física y la metafísica se confunden: la sepultura de la iglesia, allá en donde hasta el s. XIX se enterraron a los *etxeakoak*, y que continuó siendo un lugar simbólico representativo de etxe en la iglesia y en la eternidad. La mujer que había

dado a luz permanecía en casa hasta la *benedictio post partum* (*elizan sartzea*) o su presentación en la iglesia, y si salía lo hacía debajo de una teja, que reflejaba la protección del hogar. Esa costumbre se mantuvo hasta principios del s. XX, cuando la teja fue sustituida por un pañuelo: «*Orain nolanai aterata ibiltzen dira*» ('Hoy en día salen de cualquier modo') decía una informante de Andoain en 1924 (Etxeberria, 1929: 56-59) (...) Toda esta larga digresión sobre el campo social y simbólico de *etxe* nos marca los límites del terreno de juego de la mujer, la *etxeakoandre*. Muy alegremente se ha reducido el trabajo de la mujer a un espacio doméstico. Tendríamos que decir a un espacio doméstico interior, pues ya hemos establecido que los límites del *oikos* y de *etxea* llegaban muy lejos, mucho más allá de las paredes del caserío. (...) Se ve el gran poder decisorio de la mujer en el mundo rural, muy superior al del mundo urbano, derivado de su «mayor incorporación en la economía agrícola», con «un mayor poder decisorio (...) principalmente en la esfera doméstica, mientras que el hombre sigue dominando en la pública» (Valle, 1985:59) (Berriochoa, 2013: 8-11).

Beraz, emakumea etxearen ordezkari gisa joaten zen bisita horietara, aurreko belaunaldiek sortutako harreman-sareko betekizunak asetzera. Ideia hau azpimarratu nahi genuke; izan ere, atsolorra ez da ama erditu berriaren lagunek ematen dioten bisita. Bisitakoak joaten zaizkio, urteetan auzoan sortutako harreman-sare bateko ordezkariak, aurrekoek sortutakoak:

También la mujer tenía sus funciones comunitarias vecinales (...) Una de estas era la llamada *bisita* o *atsolorra*. Se trataba de la visita de cortesía que efectuaban las *etxeakoandres* a la mujer que había dado a luz. Cuando ya se encontraba repuesta, a primera hora de la tarde, las *etxeakoandres* vecinales rendía pleitesía a la madre. Le llevaban regalos (galletas, chocolate, alguna botella de licor...) y merendaban, normalmente chocolate acompañado de galletas y vino dulce o licor. El tópico masculino (en muchas ocasiones era el padre quien servía) dice que algunas bebían más de la cuenta y que no dejaban títere con cabeza (Zapirain, 1993:153-155) Similar visita, menos festiva, se hacía a las casas en donde existía un enfermo. (...) Todas estas prácticas vecinales (*ordeas*, *auzolan*, visitas, reparto del cerdo...) eran vehículos importantes para establecer solidaridades diádicas o poliádicas y evitar que la casa cayese en el ostracismo comunitario (Berriochoa, 2013: 31-32).

Emakumea etxeako kide garrantzitsua zen eta inondik inora gizonezkoen esku-bide berak ez bazituen ere, badirudi, bereziki nekazari-munduan emakumeak erre-konozimendu handia zuela. Hala diote, euskal gizartea ikertu duten ikertzaileek ere:

En el mundo rural, y más en el urbano, el hombre tenía preeminencia sobre la mujer. Disfrutaba de más libertad, de más poder tanto en la juventud, como en el matrimonio o en la soltería. La mujer, salvo en la iglesia, ocupaba un lugar detrás del hombre: en la aldea, en el concejo, en la taberna, en el duelo, en las campanadas de muerto.... *Etxekojaun* era la cabeza visible de *etxe*, su representación exterior. Sin embargo, Caro, Douglass, Barandiaran, cualquier visitante se han visto sorprendidos por la estatura social femenina, especialmente en relación a los contextos vecinos al vasco. Ese pedlaño social fue ganado por el rol femenino en las relaciones de producción y de reproducción social y cultural. Ni diosa, ni amazona, ni heroína, la *etxeakoandre* fue, por encima de todo, una trabajadora incansable que se ganó su posición social, muy superior al de la mujer urbana. Fue un agente activísimo en la

familia y en la transmisión cultural e ideológica. La mujer tenía una enorme dignidad en su especie vital, reconocida por su marido, sus hijos y sus vecinos (Berriochoa, 2013: 33).

Asko hitz egin da eta hitz egiten da oraindik euskal gizartean emakumeak izan duen garrantziaz. Oso atzera joz gero, ezin jakin zer topatuko genukeen, baina azken mendeetan, eta hala adierazten dute nekazari-mundu hori ezagutu duten emakumeek ere, emakumea etxearen eremuari lotuta egon da. Horregatik, elkarrizketatu gehienek diote emakumeak ez zuela askatasun handirik eta atsolorra aukera bikaina zela etxetik ateratzeko eta, hain zuzen, horregatik joaten zirela hain pozik.

En la sociedad vasca tradicional también aparece el hombre casado con más privilegios que su mujer. Fue raro que la casada mantuviese una vida social intensa, limitándose sus salidas de casa, aparte de para trabajar en el campo, para acudir a la iglesia y participar en contadas fiestas. Y por supuesto, cuando han de visitar a otras casadas que acaban de parir, con motivo de algún fallecimiento en el vecindario (...) (Caro Baroja, 1987: 214).

Emakumearen garrantzia dela eta ez dela, asko hitz egin da amaren estatusaz. Badirudi haurdun zegoen emakumeari lagundu egiten zitzaioela haurra izan aurretik, izateko unean eta ondoren ere, eta horren arrastoa izango litzateke atsolorra. Elkarrizketatuek, ordea, oso bestelako kontuak aipatzen dituzte: erditu aurretik ez zuten inolako laguntzarik jaso (haurdun zegoela burdina hartzen zuen galdetzen ziotenean berak aizkora hartzen zuela erantzuten omen zien Ramoni Galdeano elkarrizketatuak bere alabei); asko ez ziren behin bakarrik ere medikuarenera joaten aurretik; askok etxean izan zuten umea, beste aukerarik ez zegoelako; eta erditzeko egunean ere, sekulako lanak egin eta gero jartzen omen ziren erditzeko prest... Beraz, laguntza gutxi, edo bat ere ez.

Litekeena da, haurra jaio ondorenean amak laguntza jasotzea, inguruko emakumeengandik, ama, amaginarreba, ahizpa edota bizilagunengandik, baina ez dute horrelakorik adierazi. Eta, akaso, jasotzen zuten laguntza hori, oraindik elizan sartu gabeak zirelako jasotzen zuten, baldintza horrek hainbat muga jartzen baitzizkien etxeko lanetan aritzeko:

En Ganboa (A) anotan que la parturienta debía permanecer inactiva por lo que eran sus hermanas, su madre, las vecinas o la *visitadora* las que le hacían los trabajos de casa (Barandiaran; Manterola, 1998: 190).

Laburbilduz, uste dugu berriz ere talka egiten dutela emakumearen garrantzia azpimarratzen duten ikuspegi idealistek eta errealtateak. Ikertzaile batzuen arabera, emakumeek paper garrantzitsua zuten etxean, familian eta gizartean. Paperean eta ahoz jasotako testigantzek, ordea, oso bestelako errealtatea erakusten dute. Genero Antropologiak agerian utzi duen bezala, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko bikoizketan egongo litzateke azalpena. Emakumeek, «las grandes sufridoras» Olaizola (2015: 73) antropologoaren esanetan, errekonozimendua zuten esparru pribatuan, baita esparru publiko batzuetan ere, baina beti, arestian esan dugun bezala, etxearen ordezkari zen neurrian, esparru pribatuari loturik honenbestez. Esparru publikoan, erabakitze-eremuetan, ordea, ez zuen ez lekurik, ez hitzik.

## 5. Eremu propioak

Ereñotzu auzoan elkarrizketatutako guztiek onartzen dute, garai hartan, emakumeak ez zirela normalean etxetik ateratzen, erosketak egitera, merkatura, mezetara edo noizbait senarrarekin paseatzera ez bazen; horrelakoetan, mendibuelaren bat egitera, edota ermitaren bat bisitatzera joaten zirela aipatzen dute. Beraz, guztientzat arnasmunea zen atsolorra, etxetik ateratzeko aukera, festa, eta pozik joaten omen ziren. Garaiko gizartea erlijioz eta moralez betetakoa zen eta ez zien arnas aukera handirik ematen emakumeei.

Are gehiago, memoria kolektiboak askotan askatasunerako eta lotsagabekeriatarako gune bezala gorde ditu emakumeen bilera horiek. Guztiak horrela ez ziren arren, gogoan jaso dira alderik ludiko eta askatzaileenak, transgresiboenak neurri batean: emakumeek nola edaten zuten, nola zizpatu edo mozkortzen ziren, zein lotsagabekaria esaten eta egiten zituzten zenbaitetan zenbaitzuek, nola ibiltzen ziren ujuka eta irrintzika etxeko bidean eta abar. Garaiko gizarte moralistaren ustez, gizonezkoei noiznahi onartzen zitzaizkien ekintzak arau-hausleak ziren emakumeek eginez gero. Are gehiago, memoria kolektiboak gogoan ditu hainbat emakume, garaiko moralak eta legeak hautsiz, pentsatzen zutena egin eta esaten zutenak, maiz lotsagabearen estigma ere bere gain hartzeko arriskuarekin. Nolanahi ere, gaur egun jendeak alaitasunez eta miresmen puntu batez gogoratzen ditu emakume ausart haiek.

### 5.1. Emakumeen espazioak

Zoritzarrez, atsolorraren gaineko literatur aipamen bakarretako bat Ataño errenteriarrek utzitakoa da eta polita bada ere, ez die batera mesederik egiten berak deskribatutako atsolorra hartan parte hartu zuten emakumeei:

Iritxi uan zoritzarreko arratsalde ura. Banaka-banaka asi itun etortzen. Batek txokolatea, besteak patarra, aurraren pixoialak, bakoitzak al zuena, ez uan iñor ere esku utsik etorri. (...) Patar-botil bat ustu ziteken; bigarrena ere beraka zieken. Atera nieken bigarren txokolatea maiera. (...) Inguruko ezkondu ta ezkongai, mutil ta neskazar, danak larrutu zizkitekera arratsalde hartan. Danak itzegin ta iñork entzuten ez ari zirala, oraindik ongi zeudenak baitun tartean (Zapirain, 1979: 154-155).

Ereñotzuko informanteen arabera, atsolorrean askotan lasai-lasai egoten ziren emakumeak kontu-kontari eta meriendatutakoan etxera itzultzen ziren iluntzerako. Ez zen besterik. Beste batzuetan, ordea, gertaera xebreak izaten ziren eta sarritan gertatzen den bezala, horiek dira memorian jaso direnak.

Esate baterako, Añarbe aldeko Pikorronea baserrian atsolorra izan eta gero, lau lagun bueltan zihozazela, haietako bati gogoratu omen zitzaion elurretan marka uztea eta gonak altxa eta hantxe tapa! eseri eta utzi zuela *moldea*, kulerorik gabe izaki nonbait.

Beste batean, gizasemeak araldian bidea konpontzen ari zirela, «Allakuidaus» izeneko guardari gogoratu omen zitzaion pasaeran zihozazen bi emakumeri adarra jotzea eta patentea eskatu zienean, emakumeetako batek, elurretan marka utzi

zuenak hain zuzen ere, zutik jarri eta hankarteari keinu eginez «hemen zeukat nik patentea joan deneko 80 urtean» erantzun omen zion barrez.

Festa jartzeko emakume hori aski omen zen eta behin baino gehiagotan ibiltzen omen zen zizpatuta eta gonak altxata. Deigarria da nola gorde duen gogoan memoria kolektiboak mugak eta arauak hausten zituen emakume horren oroitzapena; harriduraz, miresmenez eta zenbaitetan destainaz hitz egiten dute hari buruz. Del Valle antropologoak neskato eta mutikoen heziketan mugimenduek eta espazioek duten garrantzia azpimarratzen du: «Esta diferenciación en la libertad de movimientos no es accidental (...) y estaría a su vez relacionado con las características que en la cultura vasca se asocian con lo femenino y lo masculino» (Del Valle, 1983: 15).

Txilibita baserriko Maritxu Oiarbidek gogoan du neskakoskorra zela Akola baserrira joan zela bera bakarrik etxeko ordezkari; mahaiari jarrita ezin jateko ezer hartu mahaiaren erdian zegoen fuentetik, iristen ez zelako; artean ondoko emakumeek edateko ematen zioten eta etxerako bidea zerua oskarbi eta berak tximistak ikusten zituela egin omen zen. Kristina Leonetek esana da gizonezkoek sasi artetik entzun zietela atsolorretik bueltan ziren bi emakumeri: «Umea politta dela esan den, miño ez den oso politta». Inaxi Altunak, berriz, gogoan du zer algarak entzuten ziren Fagollagako faldan zehar, emakumeak etxerako bidean zihozela.

## 5.2. Gizonak

Dela beldurratik dela ezjakintasunagatik, dirudienez zenbaitetan gizonak deseroso sentitzen ziren emakumeen bilkurak zirela-eta. Emakumea gizonik gabe etxetik ateratzen ez zen garaian, bereziak izango ziren inondik inora emakumeen bilkura haiek. Mendeetan zehar mantendu badira ere, urteak dira horrelako bilerak debekatzen saiatu zirela. Hala ageri da, esate baterako, Bizkaiko Foruetako XVI. mendeko aipamen honetan:

El Fuero de Bizkaia prohibió esta costumbre y de ello se hizo eco el historiador vizcaino Iturriza quien a finales del siglo XVIII escribió: «Las paridas guardan cama unos ocho días (...). Combalecidas que sean concurren las parientas y amigas a visitarlas en un día destinado con regalos de capones, gallinas, huebos, Chocolate y otras cosas, no obstante de estar provisto por la ley septima del titulo 35 del fuero de este Señorío». (...) Una de la Ordenanzas de la Villa de Bilbao vigentes en 1567 tiene por título: «Mugeres no bayan a bisitar las paridas más de seis» (Barandiaran; Manterola, 1998: 204-205).

Ereñotzuko testigantzen arabera, jeneralean gizonezkoek ez zuten parte hartzen atsolorretan (Akola baserriko Antoniok gogoratzen du bera joan izana atsolorretara aitarekin); eta edozein igande arruntetan bezala baserriko lanetan jarduten zuten edota tabernara joaten ziren.

## 6. Azken oharrak

Atsolorra, euskal jaiotza-erritua, mendez mende mantendu zen ia XX. mendearen laugarren hamarkadaren hasiera arte. Urte horietan desagertu egin zen eta orain,

atsolorra ezagutu zuten lagunei eta ahalegina egiten ari diren hainbat gizatalderi esker, berreskuratu egin da ohitura, oso bestelako itxura badu ere. Halaxe ari dira Hernaniko Ereñotzun, Orduñan eta Oiartzunen, esate baterako.

Itxura batean gertakari isolatua dirudien arren, atsolorra Euskal Herriko leku askotan egiten zen antzina. Batez ere Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan eta Lapurdin ageri da dokumentatua. Ereñotzu inguruko herri gehienetan ageri da: Goizuetan, Urnietan, Erreterian eta Oiartzunen, besteak beste. Horietako askotan galdu egin da, Erreterian esate baterako, eta beste batzuetan, aipatu bezala, berreskuratzen ari dira. Oñatin eta Antzuolan ere egiten da gaur egun. Eta adituek jasotako testigantzen arabera, nahiko zabaldua egon zen ohitura Euskal Herrian barrena.

Artikuluari zehar adierazi dugun bezala, atsolorra izaera kolektiboko nekazari-gizarte baten ezaugarria da. Bertan mendeetako bizimodua eta mundu-ikuskera ageri dira, oraintsu aldatu dena eta desagertzeaz dagoena: mundu magiko ezezaguna, mundu erlijiosoa (Jainkoak nahi duena), antolaketa soziala (bisitakoa izan) eta kulturala (auzoaren eta auzolanaren garrantzia) barne hartzen dituena. Lan honetan nekazaritza-esparrura mugatu gara; ez dugu aztertu, beraz, arrantzaleguneetan edota hiriguneetan nolakoa izaten zen atsolorra, izaten bazen.

Bistan denez, atsolorrak ezaugarri nahiko finkoak izanagatik, tokian tokiko aldaerak ere izaten ziren: batzuetan jateko zerbitu eramatzen zuten, beste batzuetan dirua besterik ez; batzuetan beltzez janzteko debekua zegoen, beste batzuetan ez; normalean gizasamerik ez zen izaten, baina zenbaitetan bai. Urnietan, esate baterako, haurrak besoz beso ibiltzeko ohitura zuten bisitariek.

Ikerketa egiteko eskatu zuenean, Ereñotzuko auzo-udalaren asmoa zen garai bateko bizimodu eta pentsamolde batzuen erakusgarri zen atsolorrari buruzko informazioa jasotzea; batetik, ezagutu zuten pertsonak gero eta gutxiago direlako, eta bestetik, ohitura hori berreskuratzen ari direlako. Atsolorra eguneratzen ari dira, ohitura berrasmutzen. Auzolana eta gune txikietako bizimodua indarra hartzen ari den sasoi honetan, auzo-udalaren asmoa izan da auzoek elkar ezagutzea, iraganak eta orainak, hala nahi izanez gero, bat egiteko.

Antropologian jakina da igarobide-errituek duten garrantzia. Gizarte guztietan bizitzako une garrantzitsuen inguruko errituak aurkitzen ditugu. Artikuluari zehar aipatu dugun bezala, atsolorra bizitzako une garrantzitsuekin lotutako gertaera da. Era berean, gizarte-antolaketa batek ezarritako ohitura da eta horren ondorioz ditugu bisitakoek jaiotza, gaisotasuna edota heriotzaren inguruan auzoekin zituzten konpromisoak. Elkar zaintze horrek baditu beste adirazpide batzuk artikulu honetan aipatu besterik egin ez ditugunak: esandako betekizun horiez gain, ez ditugu ahaztu behar etxez etxe ibiltzen ziren emaginak, sendabelarrekin lan egiten zuten emakumeak, edota hildako norbait zegoenean gorputza janztera joaten ziren emakumeak, besteak beste.

Ez da lan xume honen helburua inolako irakurketa sakonik egitea. Azken batean, epe laburrean eremu mugatu batean jasotako lagin «txiki» baten gainean egindako ikerketa-lana besterik ez da. Edonola ere, landa-lan horretatik orokorrerako zubi-



lana egin nahi dugu hausnarketa honen bidez. Barley (1983:233) antropologoak zioenez, «por debajo de lo particular siempre hay fuerzas más generales» eta, hain zuzen, horiek azaleratzea eta horiei buruzko hausnarketa sustatzea du helburu artikulu honek.

Bestalde, ez dugu inondik inora emakumearen eta euskal kulturaren irudi idealizatua eta mitifikatua erakutsi nahi. Gizarte patriarkalean bizi gara eta agian Basterretxeak (2016:27) dioen bezala «eredu horrek sortu duen mentalitateak itsutu egiten gaitu, eta eragozten beste antolamendu sozialak eta ekonomikoak ikustea». Izan liteke. Baina, ikerketa-lana egin bitartean oso bestelako mezuak jaso dira, emakumearen paperaren inguruan, emakumeen ahotik. Beste era batera esanda, jasotako datuek, dokumentazioak eta elkarrizketek oso bestelako errealitatea erakusten digute. Del Vallek aipatzen dituen kontraesanak geratu dira agerian «entre la idealización del poder de la mujer y la realidad de una ausencia real de ese poder» (Del Valle, 1983: 2). Ezin jakin dezakegu atzerago joz gero zer aurkituko genukeen, baina aipatutako ikertzaileek eta tokian tokiko testigantzek zera uzten dute agerian: emakumeek lan handia eta aukera txikiak zituztela.

## Bibliografia

- Agirre Sorondo, A. (1996): *El rito funerario en Euskal Herria*, Euskal gaiak, Orain, Bilbo.
- Arregi, G. (1984): «Auzoa», in J.M. Barandiaran (zuz.), *Euskaldunak. Euskal Etnia*, Etor, Donostia, 3. liburukia, 601-656.
- Barandiaran, J.M. eta Manterola, A. (zuz.) (1998): *Euskalerriko Atlas Etnografikoa. Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Etniker, Bilbo, IV. atala, 189-207.
- Barley, N. (1983): *El antropólogo inocente*, Anagrama, Bartzelona.
- Basterretxea, M.C. (2015): *Rito de nacimiento vasco «Atsolorra»*, <<http://www.euskonews.com/0642zbk/gaia64204es.html>> (Kontsulta: 2018-10-14).
- , (2016): *Euskal Herria, Kultura Matrilineala*, Potlatch Editorial, Madril.
- Berriochoa, P. (2010): «Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan», <<http://www.andoain.eus/documents/131314/520330/02BERRIOCHOA.pdf>> (Kontsulta: 2018-10-14).
- , (2013): «La baserritarra en el caserío atlántico vasco en los siglos XIX y XX», <<http://seha.info/congresos/articulos/A.1.%20Berriochoa.pdf>> (Kontsulta: 2018-10-14).
- Caro Baroja, J. (1987): *Nosotros los vascos. Mitos, leyendas y costumbres*, II. liburukia, Lur, Donostia.
- Del Valle, T. (1983): «La mujer vasca a través del análisis del espacio: utilización y significado», <<http://www.ingeba.org/lurralde/lurranet/lur06/06valle/06valle.htm>> (Kontsulta: 2018-10-14).
- , (1996): *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*, Euskal gaiak, Orain, Bilbo.
- Ereñotzuko Auzo Udala (2016): *Atsolorra* [DVD].
- Erkoreka, A. (1987): «Desaparición de los rituales y creencias asociados al recién nacido», <<https://core.ac.uk/download/pdf/11496600.pdf>> (Kontsulta: 2018-10-14).
- Estomba, M. eta Arrinda, D. (1982): «El "auzo" o vecindad», in J.M. Martín De Retana (zuz.), *La Gran Enciclopedia Vasca*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, XVI. liburukia, 126-131.
- Estornes Lasa, B. (1984): «Conducta familiar», *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Etnología y sociología de los vascos*, Auñamendi, Donostia, 438-446.

- Euskaltzaindia: <[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=atsolor&option=com\\_hiz\\_tegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=atsolor&option=com_hiz_tegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai)> (Kontsulta: 2018-10-14)
- Intxausti, J. (zuz.). (1985): *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*, Lankide Aurrezkia, Donostia.
- Lekuona, I. (2016): *Atsolorra*, <<http://www.kronika.eus/albisteak/erenozu/albisteak/2016/04/16/7fd976f956649/haurra-jaio-dun-halako-etxetan-eta-laster-izango-dinagu-atsolorra-han-ere/?azpimarratu=atsolorra>> (Kontsulta: 2018-12-02).
- , (2017): *Atsolorra, euskal jaiotze erritua Ereñotzun*, <<http://www.hernani.eus/documents/497182/2180509/Urtekaria+2017/ee4f49f1-e5a4-8a9e-f404-f9715ae9eabc?version=1.0>> (Kontsulta: 2018-12-02).
- Oar-Arteta, S. eta Peña, L.M. (2008): «Usos tradicionales de los helechos en Euskal Herria», *Etniker*, 15, Bilbo.
- Oiartzungo Udala (2015): «Atsolorra berreskuratzen: oso polita da haurrak denonak izatea, denon ardura izatea haurrak ateratzea», *Oiartzungo Udala informatzen*, Oiartzun, 24-25.
- Olaizola, I. (2015): *Muerte, ritual funerario y luto en Euskal Herria*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Perrault anaiak (1812): «Basoko loti ederra», in M. Desclot (egok.), *Betiko ipuinak*, Elkar, Donostia (1997).
- Urrutikoetxea, J. (1999): «“Ets-adi” / “Etse” (“Etxe”) – “Familia” / “Casa”: a los terrenos de la historia por los vericuetos de la idealización y la ideologización», <<http://hedatuz.euskomedia.org/3343/1/28271294.pdf>> (Kontsulta: 2018-12-02).
- Planetamama.com: «¿Qué es un Baby Shower?», <<https://www.planetamama.com.ar/nota/%C2%BFqu%C3%A9-es-un-baby-shower>> (Kontsulta: 2018-12-02)
- Zapirain «Ataño», X. (1979): *Txantxangorri kantaria*, Auspoa, Tolosa.
- Zavala, A. (1992): *Txirrita. Jose Manuel Retegi Lujanbio*, Auspoa, Tolosa.

### Elkarrizketatutako pertsonak

Ramoni Galdeano; Manoli Ormaetxea; Iñaxi Altuna; Iñaxi Oiarbide; Maritxu Oiarbide; Miren Aranburu; Enriketa Aranburu; Juana Josefa Lizarralde; Kristina Leonet; Dolores Oiartzabal; Sebastiana Biurrarena eta Juanita Ugalde.



